

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektuaren izena *EKOZIKLETA* da. Gaur egungo larrialdi klimatikoa kontuan hartuta uste dugu oso garrantitsua dela gutxiago kutsatzea. Horretarako, enpresak salduko dituen produktuak bizikleta elektrikoak izango dira. Baina betiko bizikleta elektrikoak ez izateko, zenbait hobekuntza egingo ditugu; gurpiletan eguzki panelak ezarriko ditugu energia argitik lortzeko eta gainera gurpilek mugimendurekin energia sortzeko ahalmena izango dute. Gure diseinuan ere, kendu ahalko den bateria jarriko dugu, bateria eramangarri moduko bat, horrela sortutako energia beste erabilera batzuetan erabili ahalko dugu.

Bestalde, bizikleten osagarriak (zelak, argiak, giltzarrapoak...) material birziklatuekin eginak salduko ditugu

Gure helburu nagusia, ingurumenarekin konpromiso hartzea eta energia berriztagarriak sustatzea da.

Hau izango da gure enpresaren logoa eta izena: **EKOZIKLETA**

